

MERKATARITZA DATUETAN

2014 KO 1. HIRUHILEKOA



Aurkibidea

1	Salmenten bilakaera.....	3
2	Gizarte segurantzako afiliazioen bilakaera	5
3	Kontsumitzailearen konfiantzaren indizearen bilakaera	9
4	Kontsumorako prezioen indizearen bilakaera.....	11

1 SALMENTEN BILAKAERA

Tituluak:

- Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %1,1 gutxitu ziren 2014ko lehen hiruhilekoan.
- Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %0,7 nominala jaitsi da

Eustatek emandako datuen arabera, 2014ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,1 murriztu ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, lan-egutegiko termino homogeneoetan. Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %0,5 jaitsi ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,7 nominala jaitsi da, urtaro-eraginak kenduta.

	EUSKAL AE-KO TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA URTE ARTEKO ETA HIRUHILE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA			
	1. HIRUHILEKOA. 2014			
	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t/t-4	t/t-1	t/t-4	t/t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-1,1	-0,7	-2,0	-0,9
Araba	-0,6	0,3	-2,0	-0,2
Bizkaia	-1,6	-1,5	-2,5	-1,5
Gipuzkoa	-0,6	0,2	-1,1	-0,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-3,4	-2,2	-4,2	-2,5
Elikagaietan espezializatuta	-2,4	-3,4	-3,3	-3,9
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-3,9	-0,7	-4,3	-1,1
Beste produktuak	1,8	-0,8	0,1	-0,5
Pertsonen hornikuntza espezializatuta	6,1	-0,3	1,1	-0,2
Etxearen hornikuntza espezializatuta	1,7	1,7	2,7	1,9
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-2,3	-5,2	-2,8	-5,3
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-1,7	-1,2	-2,5	-1,9
Automoziorako erregaia	-5,0	0,0	-3,7	0,7
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-0,5	-1,4	-1,8	-1,4

t/t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t/t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

1.Taula. Iturria: Eustat.

Elikagaien salmenta nominalak %3,4 murriztu ziren 2014ko lehen hiruhilekoan; Gainerako produktuetan %1,8 gehitu zen eta Automobilgintzarako erregaian %5,0 jaitsi, beti ere 2013ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %2,4 jaitsi zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %3,9. Gainerako produktuen txikizkakoan, gehikuntzak: Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan (%6,1), Etxeko ekipamenduan (%1,7). Jaitsierak: Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan (%-2,3); Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan (%-1,7).

2014ko lehen hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %1,6 murriztu dira Bizkaian urte artean; Araban eta Gipuzkoan %0,6.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %2,0 murriztu ziren lehen hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %1,8ko jaitsiera errealak izan dute 2013ko hiruhileko beraren aldean.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera errealak %4,2 izan zen; Gainerako produktuetan %0,1 igo, 2013ko hiruhileko beraren aldean, eta Automobilgintzarako erregai-salmentetan %3,7ko jaitsiera prezio finkoetan.

Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-3,3 dugu espezializatuen termino errealean; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuen %-4,3. Gainerako produktuetan Pertsonaren ekipamenduen espezializatuen %1,1eko igoera eta Etxeko ekipamenduen %2,7; Kontsumoko beste ondasunetan %-2,8 eta Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuen %-2,5.

Hiru lurraldeetan izan ziren jaitsierak salmentetan termino errealean: Bizkaian %-2,5, Gipuzkoan %-1,1, Araban %-2,0.

Euskal Aeko txikizkako merkataritzaren salmentak errealean %0,9ko jaitsiera dago aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

2 GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

Tituluak:

- Urtarrilean eta otsailean afiliazioen jaitsiera hiru lurraldeetan, igoera martxoan

- Urte arteko alderaketa: Barakaldo eta Irun dira, 7 merkataritza udalerrri nagusietatik afiliazioen igoera erakusten duten udalerrri bakarrak. EAEan txikizkako merkataritzaren afiliazioen %1,29ko jaitsiera ematen da.

2. taulan 2014ko 1. hiruhilekoari dagokion lurralde historikoen eta erkidegoaren afiliazioen bilakaera adierazten da. Handizkarien sektorean, Arabak portaera irregularra erakusten du, urtarrilean eta otsailean afiliazioen jaitsiera gertatzen da eta martxoan leheneratzea. Honek, hiruhilekoa bukatzerako orduan, urtarrilean izandako afiliatu saldoa gainditzea ahalbidetzen du.

Gipuzkoan antzeko portaera hauteman badaiteke ere, otsailean gertatzen da afiliatuen berreskurapena, Bizkaiak hiruhileko onena erakusten duen lurraldea da, azken bi hilabeteetan hazkundera ematen delarik.

Txikizkariak Araban ezezik (martxoan berreskurapen motela ematen da) zenbateko negatiboak erakusten dituzte lurralde guztietan, Urtarrilean jaitsierak bereziki adierazgarriak badira ere hurrengo hilabeteetan jaitsiera motelagoa azaltzen da.

Ibilgailu eta ordezko piezen sektoreari dagokionez, urtarrilean eta otsailean bilakaera negatiboa erakusten badu ere, Araban ezezik martxoan leheneratze garrantzitsua ematen da.


Merkataritza sektorean, termino orokorretan, eta EAE osoa kontuan izanik, afiliazioen jaitsiera erakusten duen hiruhilekoa izan dela aipatzekoa da, bereziki urtarrileko jaitsieren eraginez, martxoko leheneratzeak eragin hau ezitza lortu badu ere.

LURRALDE HISTORIKOAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2014KO 1.HIRUHILEKOA

	ARABA	ALDAK.	GIPUZKOA	ALDAK.	BIZKAIA	ALDAK.	E.A.E.	ALDAK.
Handizkariak								
14/01	5.747	-%0,33	12.530	-%0,91	20.299	-%1,19	38.576	-%0,97
14/02	5.735	-%0,21	12.566	%0,29	20.377	%0,38	38.678	%0,26
14/03	5.757	%0,38	12.562	-%0,03	20.382	%0,02	38.701	%0,06
Txikizkariak								
14/01	9.980	-%3,96	23.815	-%3,36	45.561	-%2,94	79.356	-%3,19
14/02	9.978	-%0,02	23.710	-%0,44	45.436	-%0,27	79.124	-%0,29
14/03	9.993	%0,15	23.704	-%0,03	45.417	-%0,04	79.114	-%0,01
Ibilg. eta ord. piezak					6.263			
14/01	2.018	-%3,77	4.241	-%0,61	6.222	-%0,65	12.481	-%1,16
14/02	2.023	%0,25	4.219	-%0,52	6.201	-%0,34	12.443	-%0,30
14/03	1.992	-%1,53	4.255	%0,85	6.222	%0,34	12.469	%0,21
Guztira								
14/01	17.745	-%2,79	40.586	-%2,33	72.082	-%2,26	130.413	-%2,35
14/02	17.736	-%0,05	40.495	-%0,22	72.014	-%0,09	130.245	-%0,13
14/03	17.742	%0,03	40.521	%0,06	72.021	%0,01	130.284	%0,03

2.taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

1. grafikoan merkataritzako afiliazioen bilakaera ikus daiteke, metatutako EJSNren 45, 46 eta 47 epigrafeak, 2009ko urtarrilean seriea hasi zenetik., EAE osorako.



1. Grafikoa. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

3. taularen bitartez, urte arteko moduan eta azpisektoreka azterketa bera eginez, hiru lurraldeek zenbateko negatiboak erakusten dituztela ikus daiteke, Arabaren balantzea negatiboena izanik, ibilgailu eta ordezko piezen sektorean bereziki. Arabari Bizkaiak jarraitzen dio txikizkako merkataritzaren datu eskasen ondorioz eta azkenik Gipuzkoak azpisektore guztietan jaitsiera motelena erakusten duen lurraldea da.

EAE mailan erkatutako afiliazioak azpisektore guztietan jaitsi direla aipatzekoa da, baina aurreko urteko datuekin alderatuz jaitsieraren portzentaia txikiagoa da. Datu positiboak erakusten dituen sektorea handizkako sektorea da, afiliazioak %1,08an jaitsi dira aurreko urtean %5,17an behera egin zuten bitartean. Txikizkako eta ibilgailuen sektoreek ere, afiliazioetan ematen diren jaitsierak moteltzen dituzte %0,74 eta %0,60 beherakada txikiagoarekin hurrenez hurren. EAE osorako merkataritza sektoreko urte arteko beherakada %1,29an zenbatzen da, aurreko urtean baino %1,74 gutxiago.

LURRALDE HISTORIKOAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2014KO 1.HIRUHILEKOA

Handizkariak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	E.A.E.
2013ko afiliazioak (martxoaren 31an)	5.881	12.619	20.625	39.125
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	5.757	12.562	20.382	38.701
Aldakuntza	-%2,11	-%0,45	-%1,18	-%1,08
Txikizkariak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	E.A.E.
2013ko afiliazioak (martxoaren 31an)	10.102	23.839	46.038	79.979
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	9.993	23.704	45.417	79.114
Aldakuntza	-%1,08	-%0,57	-%1,35	-%1,08
Ibilg. eta ord. piezak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	E.A.E.
2013ko afiliazioak (martxoaren 31an)	2.133	4.333	6.417	12.883
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	1.992	4.255	6.222	12.469
Aldakuntza	-%6,61	-%1,80	-%3,04	-%3,21
Guztira	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	E.A.E.
2013ko afiliazioak (martxoaren 31an)	18.116	40.791	73.080	131.987
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	17.742	40.521	72.021	130.284
Aldakuntza	-%2,06	-%0,66	-%1,45	-%1,29

3. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

4. taulan sektoreka, hiletik hilerako bilakaera aztertzen da, 2014ko lehen hiru hilabeterako, EAEko merkataritzako oinarrizko 7 udalerriei dagokienez.

Handizkarien sektorean, urtarrilean jaitsiera erakutsi badute ere, Gasteiz, Barakaldo eta Irun dira datu positiboak aurkezten dituzten udalerriak.

Txikizkarietara dagokienez, Gasteiz eta Laudion martxoan leheneratze motela ematen da, beste udalerriek zenbateko negatiboak isladatu dira.

Ibilgailu eta ordezko piezen salmentek udalerririk guztietan zenbateko egonkorak aurkezten dituzte, Gasteizen ezezik, bertan jaitsiera esanguratsua ematen baita.

Termino orokorretan, merkataritza sektorean aurreko hiruhilekoari dagokionez, udalerririk guztiek atzera egiten dute eta Barakaldo eta Laudion urtarrilean gertatutako jaitsiera garrantzitsutik onera etortzen ari direnak.

UDALERRIAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2014KO 1.HIRUHILEKOA

	GASTEIZ	ALDAK.	DONOSTI	ALDAK.	BILBAO	ALDAK.
Handizkariak						
14/01	4.455	-%0,31	3.652	-%0,71	5.236	-%2,08
14/02	4.447	-%0,18	3.651	-%0,03	5.226	-%0,19
14/03	4.469	%0,49	3.634	-%0,47	5.219	-%0,13
Txikizkariak						
14/01	7.920	-%4,01	8.237	-%5,63	13.739	-%2,59
14/02	7.913	-%0,09	8.145	-%1,12	13.710	-%0,21
14/03	7.927	%0,18	8.141	-%0,05	13.702	-%0,06
Ibilg. eta ord. pieza						
14/01	1.540	-%3,21	897	-%0,99	1.396	-%0,92
14/02	1.542	%0,13	903	%0,67	1.395	-%0,07
14/03	1.513	-%1,88	900	-%0,33	1.396	%0,07
Guztira						
14/01	13.915	-%2,77	12.786	-%3,95	20.371	-%2,35
14/02	13.902	-%0,09	12.699	-%0,68	20.331	-%0,20
14/03	13.909	%0,05	12.675	-%0,19	20.317	-%0,07

	BARAKALDO	ALDAK.	GETXO	ALDAK.	IRUN	ALDAK.	LLODIO	ALDAK.
Handizkariak								
14/01	592	-%0,84	1.078	-%2,80	1.328	-%1,70	96	-%4,00
14/02	600	%1,35	1.074	-%0,37	1.337	%0,68	97	%1,04
14/03	605	%0,83	1.073	-%0,09	1.342	%0,37	95	-%2,06
Txikizkariak								
14/01	4.409	-%2,35	2.025	-%1,75	2.476	-%4,03	606	-%2,73
14/02	4.426	%0,39	2.024	-%0,05	2.466	-%0,40	608	%0,33
14/03	4.403	-%0,52	2.022	-%0,10	2.447	-%0,77	608	%0,00
Ibilg. eta ord. pieza								
14/01	416	-%0,72	146	%0,69	567	-%1,90	105	-%26,06
14/02	415	-%0,24	145	-%0,68	559	-%1,41	104	-%0,95
14/03	419	%0,96	141	-%2,76	571	%2,15	105	%0,96
Guztira								
14/01	5.417	-%2,06	3.249	-%1,99	4.371	-%3,06	807	-%6,71
14/02	5.441	%0,44	3.243	-%0,18	4.362	-%0,21	809	%0,25
14/03	5.427	-%0,26	3.236	-%0,22	4.360	-%0,05	808	-%0,12

4. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

5. taulan 2013-2014 denboraldirako sektoreen araberako urte arteko bilakaeraren erkaketa aztertzen da. Aurreko urteko zenbatekoekin alderatuz Laudio da zenbateko eskasena aurkezten dituen udalerria, Laudiori hiru hiriburuek jarraitzen diotelarik. Barakaldo, Getxo eta Iruneke txikizkako merkataritza da datu positiboena aurkezten dituen afiliazioetan %1,94, %0,15 eta %1,45eko hazkundeekin hurrenez hurren. Gainera Getxo eta Irun dira ibilgailu eta ordeko piezen sektorean afiliazioetan igoera erakusten duten udalerririk bakarrak.

Merkataritza sektore osoaren bilakaera aztertuz, Barakaldo (+%1,04) eta Irun (+%0,14) nabarmentzen dira eta hauek dira aurreko urteko datuekin alderatuz afiliazio kopuru handiagoa aurkezten duten udalerririk.

UDALERRIAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2014KO 1.HIRUHILEKOA

Handizkariak	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LLODIO
2013ko afiliazioak (martxoaren 31an)	4.559	3.727	5.399	616	1.085	1.399	105
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	4.469	3.634	5.219	605	1.073	1.342	95
Aldakuntza	-%1,97	-%2,50	-%3,33	-%1,79	-%1,11	-%4,07	-%9,52
Txikizkariak	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LLODIO
2013ko afiliazioak (martxoaren 31an)	8.025	8.411	13.921	4.319	2.019	2.412	625
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	7.927	8.141	13.702	4.403	2.022	2.447	608
Aldakuntza	-%1,22	-%3,21	-%1,57	%1,94	%0,15	%1,45	-%2,72
Ibilg. eta ord. piezak	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LLODIO
2013ko afiliazioak (martxoaren 31an)	1.614	973	1.476	436	140	543	172
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	1.513	900	1.396	419	141	571	105
Aldakuntza	-%6,26	-%7,50	-%5,42	-%3,90	%0,71	%5,16	-%38,95
Guztira	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LLODIO
2013ko afiliazioak (martxoaren 31an)	14.198	13.111	20.796	5.371	3.244	4.354	902
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	13.909	12.675	20.317	5.427	3.236	4.360	808
Aldakuntza	-%2,04	-%3,33	-%2,30	%1,04	-%0,25	%0,14	-%10,42

5. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

3 KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN INDIZEAREN BILAKAERA

Tituluak:

- Urteko alderaketan, adierazleen igoera iraunkorra. Igurikimenen adierazlearekin erkatuz, uneko egoeraren adierazlearen aurreratzearen ondorioz.

- Aurreko hiruhilekoarekin erkatuz, 2013ko laugarren hiruhileko honetan, %8,2ko igoera ematen da Kontsumitzailearen Konfiantzaren Adierazlean.

URTEA/ HILABETA	KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEA	UNEKO EGOERAREN ADIERAZLEA	IGURIKIMENEN ADIERAZLEA
12/04	50,30	31,90	68,60
12/05	50,50	31,00	70,00
12/06	50,60	30,60	70,70
12/07	37,60	24,30	50,80
12/08	41,60	27,30	55,90
12/09	43,20	28,30	58,10
12/10	44,80	30,10	59,60
12/11	45,00	28,80	61,30
12/12	44,30	26,70	61,90
13/01	55,70	36,20	75,20
13/02	50,70	32,10	69,20
13/03	52,10	35,00	69,20
13/04	56,70	37,70	75,60
13/05	50,80	35,80	65,80
13/06	61,80	45,90	77,60
13/07	63,30	47,40	79,20
13/08	68,60	53,40	83,70
13/09	69,80	54,10	85,40
13/10	65,30	51,20	79,50
13/11	72,30	54,40	90,10
13/12	71,00	53,80	88,20
14/01	77,70	62,00	93,40
14/02	71,50	55,00	88,00
14/03	76,30	60,40	92,20

6. taula. Iturria: CIS. Estatu mailako datuak. Lantzea: ikusmer. Azken 24 hilabeteak.


Urtarrileko Kontsumitzailearen Konfiantzaren Adierazlea (KKA) 77,7 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin erkatuz, 6,7 puntu gainetik. KKAren igoera uneko egoeraren hautemate hobeagoaren ondorioz (+8,2) eta igurikimenen igoerak eraginda (+5,2) ematen da. Aurreko urteko urtarrileko datuekin alderatuz gertatutako aurrerapena nabarmenki esanguratsua da: igoerak 22 puntu lortzen ditu, termino absolutuetan antzeko irabaziak erakusten ditu, uneko egoeraren balorazioan (+25,8) eta igurikimenetan (+18,2) igoerak emanez. Dena den, portzentualki, azkenengo hilabeteetan gertatzen zen moduan, gertatutako bilakaeraren profila ez da bereziki homoginoa: KKA %39.5 puntutan igo egiten da, uneko egoeraren zenbatespenak %71, 3ko hazkundera erakusten duelako eta igurikimenetan %24.2ko igoera ematen delako.

Otsailean KKA 71,5 puntutan kokatzen da, aurreko hilabetearekin alderatuz, 6,2 puntu azpitik. KKAREN jaitsiera hau, uneko egoeraren balorazio eskasago baten ondorioz, 7 puntu atzera egiten dituelarik eta igurikimenean jaitsieraren eraginez (-5,4) ematen da. Aurreko urteko hilabete berdineko datuekin erkatuz adierazlearen aurrerapen esanguratsua azpimarratzekoa da, 20,8 puntutan gehitzen delarik. Termino absolutuetan antzeko irabaziak aurkezten ditu, 22,9 puntu uneko egoeraren baloraziorako eta 18,8 igurikimeneentzako. Hala ere, portzentualki, azkenengo hilabeteetan gertatu den bezala, erregistratutako bilakaeraren homogeneotasuna txikiagoa da: KKA %41ean igotzen da uneko egoeraren %71,3ko hautematearen eta igurikimenean %27,2ko igoeraren ondorioz.

Martxoko KKA 76,3 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteako datuarekin erkatuz 4,8 puntu gainerik. KKAK adierazten duen igoera hau, uneko egoeraren balorazio positiboago bati (+5,4) eta igurikimenean igoerari esker (+4,2) ematen da. Modu honetan KKAK otsailean izandako jaitsieraren alde handi bat berreskuratzen du eta urteko lehen hilabeteetan lortutako balioen azpitik kokatzen bada ere aldea ez da handia. Aurreko urteko martxoko datuekin alderatuz, emandako aurrerapenak bereziki adierazgarria izaten jarraitzen du: igoera 24,2 puntutan kokatzen da, uneko egoeraren (+25,4) eta igurikimenean (+23) igoerek termino absolutuetan antzeko balioak izanik. Dena den, portzentu terminoetan, azkenengo hilabeteetan gertatzen zen bezala, bilakaera ez da berdina izan: KKA %31,7an igo da uneko egoeraren hautematean emandako %42,1eko eta igurikimenean %24,9ko hazkundera kontuan izanik.

Hiruhileko bilakaera aztertuz, 2012ko hirugarren hiru hilabeteako minimo historikoetatik, 2014ko lehen hiruhilekoraino, indizeak uniformeki igo direla ikusten da, uneko egoeraren adierazleak igurikimenean baino eragin handiagoa izan duelarik. Aurreko urteko azken hiru hilabetearekin alderatuz, 2014ko lehen hiruhilekoan %8,2ko aurrerapena ematen da, uneko egoeraren %11,3ko eta igurikimenean %6,2ko igoerei esker. Bukatzeko aipatzekoa da, lehen hiru hilabete honetako KKA 2013ko batezbestekoarekin erkatuz, 13.7 puntutan igo egin dela eta 22,4 puntutan igo da ere aurreko urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuz.

2. grafikoa konfiantzaren 3 adierazleen bilakaera azaltzen da, 2012ko urtariletik gaur egunera arte.



2 Grafikoa. Iturria:CIS. Estatu mailako datuak. Lantzea: Ikusmer.

4 KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BILAKAERA

Tituluak:


- KPI indizeak hiru hamarrenetan apaldu zuen urte arteko tasa martxoan, %0,2an kokatu arte, hots, 2009ko amaieratik izan duen balio txikiena.
- Estatuarekiko inflazio tarteak apur bat murriztu da eta Eurogunearakikoa, berriz, zabaldu.

URTEA/ HILABETA	INDIZEA	HILEKO ALDAKUNTZA	AURTENGO ALDAKUNTZA ORAINGOZ	URTEKO ALDAKUNTZA
14/01	103,3	-1,4	-1,4	0,6
14/02	103,3	-0,1	-1,4	0,5
14/03	103,5	0,3	-1,2	0,2

Unitatea: 2011 Oinarria=100

7. taula. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

Beste hiruhileko batez, medikuntza ataleko garestitze handia nabarmentzen da, botiken koordinketa ezarri izanaren ondorioz. Aitzitik, lau taldek beren prezioak gutxitu dituzte aurreko urteko mailaren aldean. Beraien artean, komunikazioak gailentzen dira. Halaber, beste hiru taldeetan salneurriak ia ez dira igo. Azpiko inflazioa ere oso balio txikietan dago kokatuta. Beraz, datozen hilekoetarako ez da goranzko tentsiorik espero. Beste aldetik, hondarreko osagaia jaitsieren eremuan dago kokatuta.



3. Grafikoa. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

EAEko kontsumoko prezioen indizearen martxoko urte arteko tasa %0,2an kokatu zen, aurreko hilekoko baino hiru hamarren beherago, INEk argitaratu dituen datuen arabera. Emaidza hori martxo batean inoiz jaso den apalena da eta Espainiarekiko diferentziala hiru hamarrenetara mugatzea ahalbidetu du, botiken koordainketaren goranzko eraginak oraindik bere horretan jarraitzen duen arren. Beraz, dagoeneko zazpi hiruhilekoz segidan inflazioa oso maila txikian ibili da, %1,0aren azpitik. Izan ere, pasa den abuztuan kontsumo prezioak %1,9 igo ziren urte arteko tasan, baina harez geroztik, eta, neurri handi batean, 2012an ezarri zen BEZaren igoerak ekarri zuen gorakadaren eragina desagertu ondoren, salneurrien hazkundea iraileko %0,7aren eta aipatu berri den martxoko %0,2aren artean ibili dira hileko guztietan.

KPI TALDE NAGUSIAK			
URTE ARTEKO ALDUKUNTZA TASA - 2014ko MARTXOA			
	Euskadi	Espainia	Euro Gune
INDIZE OROKORRA	0,2	-0,1	0,5
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	0,0	0,5	0,5
Alkoholodun edariak eta tabakoa	1,8	2,6	3,2
Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,1	0,6
Etxebizitza	1,5	1,0	1,0
Etxe hornidura	-0,4	-0,3	0,3
Medikuntza	8,0	0,6	0,9
Garraioak	-1,0	-1,3	-0,5
Komunikazioak	-6,8	-6,9	0,2
Aisia eta kultura	-1,5	-2,3	-0,3
Irakaskuntza	2,8	1,9	0,4
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,3	0,2	1,4
Beste batzuk	0,8	0,8	0,7

8. Taula. Iturria: EIN.

KPIaren martxoko aldakuntza tasa 2009ko amaieratik jaso den txikiena den arren, kontuan hartu behar da urte sasoiarekin zerikusia duten alderdi batzuek eragina izan dutela emaitza apal horretan. Alde batetik, Aste Santuaren jaiak hileko ezberdinetan ospatu dira 2013an eta 2014an. Beraz, turismo alorreko zerbitzuen prezioek emaitza apal hori lortzen lagundu dute. Orobat, landu gabeko elikagaiak 2013an garestitu ziren, eguraldi txarraren ondorioz, baina ez da horrelakorik gertatu 2014ko hilekoetan. Koiunturako alderdi horiek zuzentzen direnean eta barne eskari pribatua suspertuko den heinean, KPI indizea maila zertxobait altuagoan kokatuko dela espero da. Zehazkiago adierazita, Flores de Lemus Institutuak ezagutarazi duen aurreikuspenak %0,6an kokatu du EAEko KPI indizea aurtengo amaieran, eta %1,0an, berriz, datorren urteko azken hilekoan.

Hala azpiko inflazioak nola hondarrekoak parte hartu dute salneurriak moteltzeko ibilbidean. Lehen kasuan, martxoko urte arteko aldakuntza %0,3 besterik ez zen izan, eta bigarrenean prezioen jaitsiera %-0,7ra arte areagotu zen, erregaiak merkatu zirelako eta elikagai freskoen salneurriak egonkortu zirelako. Zerbitzuen taldeak ere moteltze nabarmena erakutsi du, %0,7tik %0,2ra igarota.

Beste hileko batez, azpimarratu behar dira medikuntza taldeko aldakuntza tasa altua (%8,0), botiken koordainketarengatik, eta hezkuntza taldearena (%2,8), unibertsitateko tasen igoerarengatik. Gainontzeko taldeek erreferentziako %2,0aren azpiko aldakuntza tasak jaso dituzte.

Are gehiago, beraietatik lauk prezioak jaitsi dituzte iazko hileko beraren aldean. Bereziki nabarmentzekoa da komunikazioen tasa (%-6,8), baina garrantzitsuak dira, orobat, aisia eta kulturaren jaitsiera (%-1,5), Aste Santuaren egutegiak baldintzatuta, garraioarena (%-1,0) erregaien merkatzearengatik, eta etxeko tresneriarena (%-0,4). Halaber, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak biltzen dituen taldeak ez ditu bere salneurriak aldatu iazko martxoarekiko (%0,0).